



DIRU-SARRERAK

Nahia Lopez, Unai Garcia, Ixone Reyes eta Marta Estevez

Akelarren parte hartzeko eta aplikazioan harpidetu ahal izateko, bezeroek ez dute ezer ordaindu beharko, dohanekoa izango da eta.

Aipatzekoa da aplikazioaren diru-sarrerak zenbait alderdi publikoen eskutik etorriko direla, hauek bere gain hartuko baitute gure aplikazioa, inizatiba honen alde egiteko eta diru-laguntzen bitartez parte hartuz. Honako hauek izango dira **Akelarreren** diru-laguntza nagusien bultzatzaileak:

- **VitalFundazioa** → Gizarte- eta komunitate-erakundeei laguntzea
- **Gasteizko Udala** → Berdintasun Zerbitzua
- **Arabako Foru Aldundia** → Berdintasun Arloa
- **Eusko Jaularitza** → Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Horrez gain, aplikazioan noizean behin agertuko den publizitateak (beti ere gure kolektiboaren nahiekin lotutakoak) eta erabiltzaileek modu boluntarioan egindako dohaintzek diru-sarrerak handituko dituzte aplikazioaren garapena sustatzeko, berrikuntzak gehitzeko eta honen erabilgarritasuna bermatzeko.

Gainera gure kolektiboari bideratutako elkarte askorekin parte hartuko dugu, bai jarduerak gauzatzeko orduan, baita diru-laguntza zein elkarlana bermatzeko orduan. Hala nola: *Satevi*, *Hegoak* edota *Gizarterako*.

